

Harrera eta ongietorria MONDRAGON UNIBERTSITATEko atzerriko ikasleei

2016/09/16

MONDRAGON UNIBERTSITATEko 80 ikasle atzerritarrek hartu zuten parte atzo –Eskoriatzan- haiantzako egin zen harrera-eta ongietorri-ekitaldian. Izan ere, unibertsitateak bere izaera eta duela 44 urte hasitako nazioarteko bidea erakutsi nahi izan die. Era berean, ikasleek elkar ezagutzea ere izan da asmoa, unibertsitateko ikastaldian harremanetan izan daitezten. 2016-2017 ikasturtean nazioarteko 169 ikasle inguru izango dira unibertsitateko ikasgeletan prestatzen.

Ikasleak Austria, Andorra, Bélgica, Bolivia, Brasil, Canadá, Colombia, Costa Rica, Alemania, Ecuador, Francia, Reino Unido, Guatemala, Italia, México, Perú, Paraguay, China, EEUU, Venezuela, Korea, Lituania, Holanda, Turkia, India, Honduras, Argentina, Finlandia, Chile, Sudan, Estonia, Slovakia, República Checa edo Poloniatik etorri dira.

Nazioarteko hitzarmenak

Bere nazioarteko ibilbideari esker, unibertsitateak hitzarmen eta akordioak sinatu ditu Europako, Ipar Amerikako eta Asiako ehun unibertsitateekin baino gehiagorekin. Ikasle eta irakasleen mugikortasuna bultzatzeaz gain, hitzarmen horiek agerian uzten dute euskal erakundeak nazioartekotzearekiko duen interesa.

Beste alde batetik, ikasturte honetan MONDRAGON UNIBERTSITATEko 771 ikaslek prestakuntzaren zati bat atzerrian egingo dute, bai ikasketa modalitatean izango dira, praktikak eta gradu-amaierako proiektuak egiten, eta learning journeyetan.

- [Harrera ekitaldiko argazkiak.](#)

